

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Goizueta

Aurkibidea

Udalerria: Goizueta

Sarrera



Nafarroako ipar-mendebaldean dagoen udalerria da. Leitzaldeko eskualdean dago kokatuta, Iruñeko merindadean. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean, Errenteria eta Oiartzun (Gipuzkoa); hegoaldean, Leitza, Ezkurra, Eratsun, Beintza-Labaien eta Zubieta; ekialdean, Arantza; eta, mendebaldean, Arano. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 780
- **Euskaldunak:** %94,84

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **20**
- Zintak: **39**
- Pasarteak: **68**
- Transkribatutakoak: **21**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **68**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoa
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Patziku Perurenaren fonoteka
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Jose Manuel Ansa Uharte (1928)



Goizuetan jaio zen, Juanikotenea etxean. Aita Aranokoa zuen eta ama Goizuetakoa. Sei senidetan laugarrena zen bera, eta gaztetxoa zela denda eta taberna jarri zituzten etxean. "Klaudion itxea" bezala ezagutu izan da denda hau, gaur oraindik ere irekita jarraitzen duena. Dendan aritzeaz gainera, aitak bezala zentratean egin zuen lan 42 urtez.

Antonio Apezetxea Arribillaga (1929)



Aita Oiartzungoa zuen eta ama Goizuetako Herrerokoa. Goizuetan jaio zen bera Tueneko Borda baserrian eta hiru senidetan bigarrena zen. Eskolan batere ibili gabe, hamabi urterekin mendian hasi behar izan zuen lanean zuhaitzak botatzen. Txondor egiten ere ibili zen gero, baina bere benetako ofizioa harri lana izan da. Ollingo mehatzeetan paretak egiten ibili zen urte batzuetan. Barrakoietako paretak egiten ibili zen, baina lur azpian ere paretak egin behar izan zituen. Arrisku handiko lanetan ibili zen orduan, eta lurretik losak ateratzeko ere dinamita erabiltzen ohitua zegoen bera. Bazuen lizentzia eta bide eta tunel asko egin zituen gaztea zela. Goizuetan bizi izan da beti.

Jose Antonio Apezetxea Zubiri Belako (1928-2018)



Aita Iberokoa zuen, Goizuetatik Leitzara bidekoa, eta ama, berriz, Aldai baserrikoa. Bera ere Goizuetan jaio zen, Danbolinborda izeneko baserrian. Bertan hasi zen anaiekin zintzarriak egiten, aita izan zuen lanbide zaharrari jarraituz. Aitak, hasieran, ez zien askorik laguntzen, baina berehala konturatu zen gogoz hasi nahi zutela, eta ordutik hobetzeko laguntza eman izan zien beti. Hamalau urte zituela, sega kirtanak egiten ibili zen aitaren tresnak erabiliz, saldu eta sos batzuk irabazteko. Mendian ere ibili zen orduko gazte asko bezala, ikatza egiten, ferrak egiten ere bai, eta zentrolean ere lan egin zuen. Baina bere benetako lanbidea, eta Goizuetan ere horrela ezagutzen dute, joaregilearena izan da. Hiru anaia hasi baziren ere, bik jarraitzen dute lan horretan (Lekunberrin aritzen da bestea) eta bere seme-alabek ere ofizioa ederki ezagutzen dute. Tailerra martxan da oraindik ere Goizuetan.

Jose Ramon Arozena Apezetxea (1934-2023)



Jose Ramon goizuetarra, bederatzi anai-arrebatatik zortzigarrena da. Ama Oiartzungoa eta aita goizuetarra; amak etxean lan egiten zuen eta aita mendiko eta laborantzako lanetan ibiltzen zen. Jose Ramon aitari laguntzen eta mineral lanean ibili izan da.

Joakina Cestau Zabaleta (1931-2015)

Leitzako Lopenea baserrian jaio zen eta hiru urte zituela Goizuetara joan ziren bizitzera. Goizuetako Aitasemegi auzoan dagoen Atataborda baserrian pasatu zuten urtebete, baina handik Iruñera joatea erabaki zuten. Iruñean 1936an sartu ziren etxe handi batean. Ahateak, oiloak, fruta-landareak eta abar zaintzea zen euren lana eta etxeko nagusia oso gaiztoa zela du gogoan. Nagusiak etxetik bidali zituen modu txarrean eta berriro Goizuetara etorri ziren aita, ama eta 4 alaba, zuten guztia hartuta. Sarranen Bordan sartu ziren aurrena, handik Portolora, gero Danbolin Bordara eta, azkenik, Artantxu baserria erosteko aukera sortu zitzaien. Danbolin Bordan bizi zirela ezkondu zen Oiartzungo Jose Antonio Zugarramurdi zenarekin eta 4 umerekin mugitu ziren Artantxura. Han beste sei izan zituzten. Aita zena oso kontu-kontalaria zuen eta ama izugarri langilea. Berak ere bertso eta kontu asko kontatu ditu.



Lazaro Eskudero

Jesus Eskudero Zugarramurdi (1941-2016)

Goizuetan jaioa, baina Leitzan bizi izandakoa.

Esteban

Felisa Garcia Bergara (1929)

Leitzako Lopeneara jaso zuten bost hilabete zituela. Han bizi zen familiari bigarren semea hondatu zitzaion eta, hark utzitako hutsa betetzeko, eta amak bularretako arazorik izan ez zezan, medikuak haur bat hartzeko gomendatu zien. Orduz geroztik familiakoa izan da Felisa. Leitzatik Goizuetara etorri ziren txikia zela, baina han ez zuten denbora asko egin. Aitak lana aurkitu zuen Iruñean eta hara joan ziren denbora baterako. Baina gerra lehertu zen han zirela, eta Goizuetara egin zuten berriz. Felisak hamalau urte bete zituen arte aitona zaindu behar izan zuen Leitzako Xeron Borda baserrian, baina orduz geroztik Goizuetara etorri eta bertan bizi izan da gainerako denbora guztian. Tueneko Bordara ezkondu zen bertako semearekin.



Martintxo Huitzi (1932)

Goizuetatik bi ordura zegoen baserri batean jaio zen. 6 anai-arreba ziren. Gerra zibila hasi zenean, 4 urte zituen eta beldurrez egoten ziren. Orduko bizimoduaren eta ibilien gaineko kontu ugari kontatzen ditu.

Manuela Loiarte Aristizabal (1918)



Artikutzan jaio zen Manuela. Aita goizuetarra zuen eta ama Oiartzungoa. Sei senidetan zaharrena da bera. Garai bateko Artikutza nolakoa zen kontatzen du eta erosketetara eta medikutara Goizuetara joaten zirela; elizako kontuak eta beste hainbat istorio interesgarri zehaztasun eta freskura handiz kontatzen ditu. Goizuetako Luis Lujanbiorekin ezkondu eta Artikutzako Presan bizi izan zen; sei seme-alaba izan zituzten. 1970. urtean alargun geratu eta Oiartzunera joan zen bizitzera.

Batixta Perurena Apezetxea (1929-2017)

Goizuetarra, Karreto baserrikoa. Hamar anai-arreba izan ziren. Bertsotan asko ibilia, baita txapelketetan ere. Leitzan bizi izan zen.

Lorentxo Perurena Apezetxea (1917-2011)

Goizuetarra, Karreto baserrikoa. Hamar anai-arreba izan ziren.

Xexili Perurena Iribarren (1931)



Goizuetako Ospabilla zahar etxean jaio zen, baina aspaldidanik etxe horri "Xardeena" edo "Xardean etxea" deitzen diote herritarrek. Bere aitona zenarengatik deitzen diote horrela, jaiotzetik esku bateko hiru hatzak falta zituelako eta, ondorioz, "Xardea" deitzen ziotelako. Gurasoak goizuetarrak zituen eta 13 urte inguru zituenetik etxe horretan bertan zuten tabernan lan egin izan du Xexilik. Horretaz gain, amari Hernanin eta inguruetan arrautzak eta etxeko gaiak saltzen ere lagundu izan zion umetan.

Patziku Perurena Loiarde (1959)



Goizuetako Aitasemegi auzoko Karreto baserrian jaio zen. Gurasoak ere biak goizuetarrak ziren, baina bakoitza zubiaren alde banatakoa. Aitaren familia baserri batetik bestera ibili zen maizter, baina azkenean Karreto baserria erosi zuen aitak. 11 urte zituela, Leitzara joan ziren bizitzera, aitak Sarrio paper lantegian lan egiten zuelako. Leitzan egin du bizitza gehiena, emaztea ere bertakoa baitu, baina beti izan du Goizuetarekin lotura. Idatzi dituen hainbat poesia, saiakera, artikulua eta abarreatatik idazle ezaguna dugu Patziku.

Gloria Salaberria Lirio (1924)



Goizuetako Zabaltenea etxean jaio zen, herrian bertan dagoen etxe handi batean. Bi senide izan ziren baina txikia zelarik herriko neska bat ere etxean jaso zuten, beraz, hiru izan zirela zioen berak. Ama ere Goizuetako etxe batean hazi zuten, nahiz eta ez zen bertakoa. Aita bai, Zabaltenea etxean bertan jaiotakoa zuen. Beti Goizuetan bizi izan da Gloria.

Maria Salaberria Salaberria (1922-2020)



Goizuetako Uattolo baserrian jaio zen, baina Petrieneara etorri ziren lau urte zituela. Erizain izateko ikasi nahi izan zuen, eta ikasketak egin ez bazituen ere, bi urte eman zituen Donostiako Groseko ospitalean praktikak egiten. Handik etxera egin zuen eta Paulaeneara ezkondu. Geroztik bertan bizi izan da. Gurasoak ere goizuetarrak zituen.

None Zerri hiltzea

Goizuetako Artantxu baserrian egindako grabaketa. Lanen azalpenetan agertzen direnak: [Joxe Miel](#), [Maria Jesus](#), Mila eta Arantxa Zugarramurdi (Goizueta); [Joxe Antonio Ansa](#) (Arano), [Lazaro Eskudero](#) (Goizueta), [Joxe Ramon Arozena](#) (Goizueta), Jabier Oskoz (Arantza) eta [Joakina Cestau](#) (Goizueta).



Joxe Migel Zugarramurdi Cestau (1956-2021)

Maria Jesus Zugarramurdi Cestau (1957)



Goizuetako Danbolinborda baserrian jaio zen. Aita oiartzuarra zuen eta ama Leitzakoa. Maizter izan ziren etxe hartan eta gero beste baserri batzuetatik egoera berean pasa ondoren, Artantxu baserrian gelditu ziren bizitzen. Aitona eta amona ere eurekin bizi ziren eta lanean bezainbat ikasi zuten aitonak kontaktzen zituen ipuinekin gozatzen. 16 urte zituenerako neskame joan zen Donostiara, etxean 10 senidetan zaharrena izaki. Aranora ezkondu zen eta geroztik han bizi izan da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Umea izan berritan teila azpitik ezin atera

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/002
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:01:49. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Hiru urte zituela Goizuetara joan ziren bizitzera. Goizuetako Aitasemegi auzoan dagoen Atataborda baserrian pasatu zuten urtebete eta han jaio zen seniderik gazteena. Lau senide ziren, hirugarrena bera. Ume jaioberria hartu eta zapi batekin teila buru gainean lotuta zuela joaten zen bere ama arropak garbitzera. Umearen ama ezin zen etxetik atera elizara joan aurretik eta ezin zen teila azpitik atera.

Transkripzioa

-Etorri giñan Atatabordara. Atatabordan jaio zen Felixiana.

-Atataborda non da?

-Goardi borda erabiltzen dun hori, Atataborda.

-Leitzan ez da?

-Ez, hemen Goizuetan eta Leitza, Atatabordara etorri. Hor jaio zen Felixiana.

-Zenbat senide ziñaten?

-Lau.

-Ta zu zenbagarrena ziñan?

-Ni hirugarrena. Ta ama zena etortzen zen, Felixiana txikia zula, teilla burun hartuta. Teilla burun hartu, pañuelokin lotu ta arropa garbitzera akolara.

-Zer dela eta teilla burun?

-Eliza sartu baiño lehen ez baitzun libre izaten, lehengo legea baitzen.

Gurasok eliza sartu baiño lehen, haurran gurasoa etxetik atera ezin.

Teillan azpitik atera ezin. Ta teillakin aritzen zen babarruna biltzen nere

ama zena, teilla burun zula, bai.

1.2. "Udaberriko lore ederrak" koplak

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/029
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:47:35. **Bukatu:** 00:48:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Udaberriko lore ederrak" abesten du Joakinak.

Transkripzioa

Udaberriko lore ederrak
erortzen dira negura,
beti gustora biziko danik
ez da jaioko mundura.

Ez da jaioko ta ez da jaioko
zu bezelako imajinik,
zuregارانako amoriyua
niri kenduko didanik.

Amoriyua, amoriyua
baldin ez bazait mudatzen,
egun eder bat siñaletuta
biok esposa gaitezen.

1.3. Pello `Errota´ren semearen bertsoak

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/031
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:48:18. **Bukatu:** 00:49:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur
transmisioa
- **Laburpena:** Miel Anton Pello `Errota´ren semearen bertsoak
abesten ditu Joakinak. Aita zenari entzunda ikasi zituen bertso hauek.

Transkripzioa

Arpegiyaren orde
esanaz mokua,
ez da pixtia
Pello Errotakua,
bere jaiotzez hori
Asteasukua,
San Pedroren eleizan

bataitutakua,
zure dibujua
ez dago bapua,
mami gabekua,
ahul eta plakua,
iya atera zazu
erretratua. (bis)

Nere aitari esan diyozu
ez duela lotsik,
sekulan eztizu egin
behar ez dan gauzik,
premiyua eman ziyoten,
ta hark hartu pozik,
zu gauza etziñelako
gelditua hutsik,
ezin bete polsik,
ez bukatzen salsik,
gizonaren trazik
ez daukazu kasik,
horrelakuak eztu
merezi galtzik. (bis)

- Nundik ikasi dittuzu hoik? Nundik?
- Aspaldikok.
- Aspaldikok dia? Zeiñek kantatzen zittun edo zeñi aittu dixkazu?
- Aitta zenari.

1.4. "Pello Errota korura joan da" bertsoa

- **Hizlaria(k)**: Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: GOI-017/033
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:49:40. **Bukatu**: 00:50:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Pello Errota korura joan da" bertsoa abesten du.

Transkripzioa

Pello Errota korura juan da
bastoia zeukan eskuan
Loak hartuta erori zaio
Ta andre bat iya hil zuan

Hauxen da lotsa eman didana
lau gona artian sartuta
edozer gauza esaten degu
ean ttantto honek poztuta
andria nola hil bihar zuen
ukitu ere ez du ta

1.5. "Gizon kurioso bat badegu herrian" bertsoa

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/035
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:51:02. **Bukatu:** 00:51:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Gizon kurioso bat badegu herrian" abesten du.

Transkripzioa

Gizon kurioso bat
badegu herrian
behin ere ez da ixiltzen
beti enbustarian
Klaro, esango det nik,
zein den holakoa
Larrupolain bertsolari Zapatanekoa.

- Larrupolain? Zein tzen hoi?
- Leitzakoa
- Esan, esan
- Leitzakoa
- Leitzakoa. Larrupolain bertsolari bat zen Leitzakoa?
- Larrupolain, larruzko polainak erabiltzen omen zitun botak o larruzko...
- Ta hola deitze ziyoen... Larrupolain

1.6. "Izar eder bat ateratzen da" bertso sorta

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/038
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:52:46. **Bukatu:** 00:54:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Izar eder bat ateratzen da" bertso sorta abesten du pasarte honetan Joakinak. Bere senarra zenari entzunda ikasitakoak dira.

Transkripzioa

Izar eder bat ateratzen da
Santio goiko mendian
hari begira egoten nazu
ateratzen dan orduan
nere denbora pixkat da baino
ai zer dolores dijuan.

Arboletan dan ederrena da
oihan beltzian pagua
nik maitetxu ba bakarria izanda

hark bestengana gogua
Jaun zerukoa eman zaiozu
niganako amoriyua.

Amoriyua txorua dala
mundu guztiak badaki
nik maitetxu bat bakarra izanda
hura bestek eramaki
hutsa litzake biziko balitz
nerekin bainan hobeki.

- Ze polittak. Zeiñenak ote dian bertso hoik? Zeiñi aitzza behintzat? Zeiñi aittu dizkazu zuk?

- Jose Antonio zenari.

- Zure senarra zenari, Jose Antonio.

1.7. `Amerikako bizitza' bertso sorta (I)

- **Hizlaria(k)**: Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: GOI-017/039
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:54:03. **Bukatu**: 00:55:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena**: Txirritaren `Amerikako bizitza' bertso sortako bertso batzuk abesten ditu. Bukaeran nahastu egiten da, baina hurrengo pasartean jarraitzen du.

Transkripzioa

Europa'tikan Amerikara
askok egin du bisita,
etxe onean jaiuagatik
han denak ezin bizita;
lana egiñaz aberastuak
dabiltza ondo jantzita,
gaur ez lituzke ezautuko
beren amak ikusita.

Handik honara ezin leiteke
diru askorik bialdu,
bat bera nola gertatuko dan
segurantzirik bai al du?
Ameriketan aberastuko
ez dira aski bi ordu,
han ere zerbait izango bada
berak saiatu bihar du.

- Bestia nola da?

- Maldaburuko indianua edo nola zan bestia?

Mandaburuko indianu hoi
etorri omen den, neska,

nigatik hor ibilliya den
soltera nagon galdezka.
Laister hemen den pretenditzera,
ai hau demontrezko festa!
Ai ze trajia egingo nuken
haren dirubak baneuzka!

Izeba neri ez zait inportik
nahiz izan erdi zahartua,
diru pixka bat baldin badauka
badugu zeñek hartua

1.8. `Amerikako bizitza´ bertso sorta (II)

- **Hizlaria(k)**: Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: GOI-017/041
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:56:20. **Bukatu**: 00:56:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Txirritaren `Amerikako bizitza´ bertso sortako beste bertso bat kantatzen du (aurreko pasarteari jarraipena emanez).

Transkripzioa

Izeba neri ez dit inportik
nahiz izan erdi zahartua,
gazte txorua baiño hobe det
juiziyuan sartua,
diru pixka bat baldin badauka
egingo degu tratua.
Ia mutillak ekarri lasai,
baziok zeñek hartua.

1.9. "Praixku galtza zar" bertso sorta

- **Hizlaria(k)**: Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: GOI-017/043
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:57:13. **Bukatu**: 00:57:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Praixku galtza zar" bertso sorta abesten du.

Transkripzioa

Praixku galtza zar det
lagun zar neria
bersoetan egiteko
zeukat umoria.
Hik ere izanikan

abilidadia
hasitzeko beldurraz
al daukak gordia.

Nik ez diat bildurrik
ba, kantu lanian.
batez ere sagardo
ederra danian.
Horrekin jardun zenak
umore onian
hi bezelakuakin
jartzen naizenian.

1.10. "Lo egitiagatik maitia zurekin" kopla pikaroa

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/045
- **Iraupena:** 0:00:18. **Hasi:** 00:58:26. **Bukatu:** 00:58:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Lo egitiagatik maitia zurekin" kopla pikaroa.

Transkripzioa

Lo egitiagatik, maitia, zurekin
moxtu egingo nuke aixkora batekin.
Gizona, ez zazula holakorik egin
gero zertako zaitut xintxillu motxakin.

1.11. "Nere andria andre ona dala" kanta

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/047
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:59:12. **Bukatu:** 01:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena:** "Nere andrea andre ona dala" abesten du. Bere koinatuari entzunda ikasitakoa du.

Transkripzioa

Nere andrea andre ona dala
auzuan hala diote, diote
erositako prezियuetan
preziyo erositakuetan
erositako prezियuetan
pozik salduko nuke.

Nere andrea kamisa zaharra

beria balu ezer ez, ezer ez
zazpi astian soinian dauka
soinian dauka zazpi astian
zazpi astian soinian dauka
garbituzeko alperrez.

Berriketian balitz gogua
eta jarduna ardatza, ardatza
nere andriak egingo luke
egingo luke nere andriak
nere andriak egingo luke
etxia bete mataza.

- Mataza. Zeri deitzen diyozue mataza?
- Hari madeja nola izaten dia? Ta ardatza, berriz, denbo baten gure izeba zena hola aitzen zen.
- Hariya itten?
- Bai. Ardatza.
- Ia kantatuyazu azkeneko bertsu hoi...

Berriketian balitz gogua
eta jarduna ardatza, ardatza
nere andriak egingo luke
egingo luke nere andriak
nere andriak egingo luke
etxia bete mataza.

- A, oain bai entendittu det hobekixeo. Ze politta. Hoi zeñena den ba al dakizu?
- Hori? Lazaro zena Kaperokona, gure koinaduana. Kaperoko Lazaro zenak kantatzen zun.

1.12. "Ezkondu eta ezkongai"

- **Hizlaria(k)**: Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: GOI-017/049
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 01:01:50. **Bukatu**: 01:02:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Ezkondu eta ezkongai" bertso sorta polita kantatzen du.

Transkripzioa

Ezkondu eta ezkongai,
guztiak ondo bizi nahi,
dirua degunian jai.
Goizian diru kontatzen,
tabernarako prestatzen,
bazkari onak topatzen.
Kafiak hartu, kopak edanez,
edari fiñak jokatzen,
egiñik eztet ukatzen,

Orain ezpaiñak nekatzen,
sardiñ hezurak txupatzen.
Familiako buruzagiak
kontu gehiago ere bai.
Lehen ardo edaten lasai
orain urrutitik usai
etxian nago andre zai.

- Hoi re bakarren batek kantatuko zun ba?
- Eztakit zeinek kantatu...

1.13. `Maritxu, nora zoaz?´kanta

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/051
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:03:04. **Bukatu:** 01:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Maritxu, nora zoaz?´; abesti ezaguna, hain ezaguna ez den bukaerakin kantatzen digu.

Transkripzioa

Maritxu nora zuaz?
eder galant hori
iturrira Bartolo
nahi badezu etorri.

Iturrian zer dago?
Ardotxo txuria
Biyok edango degu
nahi degun guztia.

Bartolo ez nuen uste
holakoa ziñanikan!
Kentzazu esku hori
leku hortatikan.

Egiten al dizut, ba,
nahi ez dezunikan?
Hori hola da, baiño,
zaude geldirikan.

1.14. "Tolon-tolon joare" abestia

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa

- **Erref:** GOI-017/053
- **Iraupena:** 0:00:11. **Hasi:** 01:04:33. **Bukatu:** 01:04:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak
- **Laburpena:** "Tolon-tolon joare" abesti polita.

Transkripzioa

Tolon-tolon joare
behiak heldu dirade
Mario xarreko baratzen
hiru aza-landare.

1.15. "Otsondoko farola" abestia

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/054
- **Iraupena:** 0:00:08. **Hasi:** 01:04:44. **Bukatu:** 01:04:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena:** "Otsondoko farola" abestiaren hasiera abesten digu Joakinak pasarte honetan.

Transkripzioa

Otsondoko katua
farolan ehiztari
erne begitzen dio
leihoko gaztari

2. Familia eta harremanak

2.1. Txakurra haur txikiaren ondoan etzan zenekoa

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/003
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena:** Lau urte zituela bere ahizpa txikiena zaintzeko ardura ematen zioten etxean. Sukaldean zeudela txakurra sartu eta umearen sehaska ondoan etzan zen hura gogoan du.

Transkripzioa

<p>-Ta gero egun baten [...] niyon ta akolatikan arropak burun dittula ta

zakurra haurran goardin. Aliko. Katea motza, katea hautsi ta jon eskaillera goitti ta atea ireki sukaldekoa ta siheskan ondon etzanta jarri. Ta ama zenak atea ireki zunen, altxa ta gaixto-gaixto hasi zen. Ta amai esan nion: "Ama, Aliko dao goian!" Ta behintzat "Aliko, ni naiz, ni naiz" ta zakurra orduntxe berriz jarri haurran onduan. Haurra sihexkan ta sihexka bera bezalaxe etzanta zakurra. Ta nik sumatu nunen aten zerbaitte; e bazela sukaldeko aten, ia saltatu nintzan leihotik kanpora, bai; o utzi ezin haurra bakarrik. -Ta zuk zenbat urte zenittun haurra zai utzi zi;uzteneko? -Lau urte. Lau urte nik. Gero ama zenak zakurra lotu eta nexka salbo. Nexkai joanta lehenbizi milikatu-milikatu in zun aurpegia eta gero bera etzanta jarri zean, sihexkan ondon. -Aizu, ba, ze sena zakurrak. -Ze politta. -Ze sena.

2.2. Iruñeako etxeko nagusia gaiztoa zen

- **Hizlaria(k)**: Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: GOI-017/004
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:04:24. **Bukatu**: 00:06:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Hiru urte zituela Leitzatik Goizuetara joan ziren bizitzera, baina handik Iruñera joatea erabaki zuten hango etxe batera. Ahateak, oiloak, fruta-landareak eta abar zaintzea zen euren lana. Etxeko nagusia oso gaiztoa zela du gogoan. Mikeleteak zituzten alde batean eta artzainak bestean. Nagusia beraien aitarekin haserretu zenean, mikeleteak ere beraien aitaren alde egin zuen.

Transkripzioa

-Gero handikan jon giñan Iruñera.

-Leitzatik Lopenetikan.

-Lopenetik etorri giñan Atatabordara.

-Hiru ume.

-Hiru.

-Hiru umekin etorri zian zure gurasuak.

-Bai. Ta hor jaio zen Felixiana.

-Felixiana jaio.

-Gero hortik jon giñan Iruñara. Ta [... Lizarrondok] ba omen zula leku ona eta morroi. Zian ahatek, oiloak ta gero fruta asko saltzen zen. Ta motiko ihartu bat bazun beti eskopeta eskun zula ibiltzen zena. Gu... beti [amaren gona azpin], iruditze ziun, beti iruditzen ziun, gu akatu beharren ari zela ta beti eskopeta gu nora, eskopeta hara ibiltzen zun. Ta nausia berriz omen zen dentista, baiño gaixto amorratua. Ta izaten genittun mikeletek punta baten eta artzaia beste eskiñan. [...] baten bizi giñan gu eta artzaiak'e asko laguntzen ziun ta mikeletek'e gure alde izaten zian. Ta mikeletek patuk omen zeaskan pixkat haserretzen hasi zanen gure aittakin nausik, hari paliza emaitteko altxatuk, mikeletek [...] patuk. Ta mikeletek ze in zuten? Gure aitta zenakin haserretu zenen, non aittan kontra iñen zuten, aittan alde in.

-Ta zertik haserretu zen ba nausiya zuen aittakin?

-Ez baitzun gauza onik itten nausiyak. Dena gaizki iña, dena "jajajaja" parra in eta hark nahi zun bezela in ta berak alde iten zun. Eta gure aitta

zenak ahal zuna itten zun, baiño beti gaizki iña. Ez dakit /eztakit/ zergatik haserretu izango zian. Beste behin berriz...

2.3. Nagusiak aitari alabak jotzeko agindu

- **Hizlaria(k)**: Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: GOI-017/005
- **Iraupena**: 0:04:43. **Hasi**: 00:06:13. **Bukatu**: 00:10:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Bost urte zituela, Iruñe era joatea erabaki zuten gurasoek, bertako etxe batera lanera. Ahateak, oiloak, fruta-landareak eta abar zaintzea zen euren lana. Zehaztasunez kontatzen dizkigu ordukoak; bost urterekin ahateei ura ematen zietela, adibidez. Nagusia beraiekin haserretu zenean, alabak jotzeko agindu zion aitari eta beraien gauzak leihotik botatzen hasi zen mikeleteek geldiarazi zuten arte. Nagusia bitartean barrez lehertu beharrean egon zen. Aitak Sarranen Bordara bueltatu ziren Goizuetara. Beraien aita ez zen gaiztoa, nagusiak esandakoa bete behar zuen, besterik ez. 13 hilabetez egon ziren Iruñean.

Transkripzioa

-Ze lan izaten zen zuena?

-Ahatek gobernatu, oilok gobernatu ta oilok izaten zian gatzontzia bezalako kaja batzutan. Beno, arrautzak jartzen zittuzten eta bere izena, bere hankako oillon anillukin, anilloko numerokin, kaja. Eta bueno anilloko numerua izaten zun oilok eta zein kajatan erruten zun, arrautzari hura patu, numero hura patu. Ta izaten zen sagarra, udarea, arana, pikok, urrak, intxaurrak. Pilla ikaragarrik izaten zian! Ta guk... jotzen giñan oillategira, intxaurren ta urran gaiñetik. Ta bat hartzea ez genun libre izaten, intxaurren ta urran gaiñetik hanka patu ber. Eta bat hartzea ez genun libre izaten. Eta, zea, oillategira jon, atea itxia baldin bazun, atea itxia baldin bazeukan kutxak, itxia, altxa, oilloa hartu, haren hankako numeroa, arrautzari patu. Ta ahatek berriz loitan ibiltzen zian, danak loitan baiño hairi jaten emaitten. Pozo batetik ateatzen genun ura hairi emaitteko. Eskailerapetik jetsi, balden ura hartu eta bost urtekin oillori ura emaitten, ahateri ura emaitten ta oillori. Behin oroitzen naiz gure aitta. Jotzen giñen nausintzako zortzi ordun ura...

-Janari bila.

-Ura ekartzea iturrira. Ta hormigoiezko muttiko bat izaten zen, pittillotik botatzen zun ura. Hartu giñun txarron eta bagoaz ta lore haundi eder bat biden. Ta gure Felixak hura hartu ta usai eiñez ikusi zulako nausik, gure attai esan hura jotzeko, lorea moztu zula, arrosa moztu zula ta. Ta arrosa lurren zeon, berriz! Joka hasi ta sudurretik odola hasi gure Felixari ta nik hozka egin eztarritik atta zenari. Ta gero nere segika ta eskailerak kanpotik izaten genittun, eskailerak goittik jon ta ohe azpin sartu ni. Ta ohe azpin txoko-txokon jarri ta hantxe. Ta nausia eta aitta zana jon nere billa ta niri jotzeko ideietan. Gero, oraindikan gehiyo hasarretu eta, bueno, hogeitalau ordun barrenen etxea libratzeko ta leihotik kanpora puskak botatzen hasi zian: sillak eta mesillak eta. Kabitzen zianak leihotikan, mikeletek etorri ta "alto".

-Nausiya hasi zen zuen trastiak...?
 -Nausiya hasiarazi... morroia, mutillak hasiarazi leihotik kanpora botatzen eta bera parrez urratzen bazterren.
 -Ta zuen gauzak leihotik behera.
 -Leihotik behera botatzen, bigarren pisutikan leihotik behera botatzen botatzen. Mesillak eta sillak eta kabitzen zian gauzak leihotik kanpora bota. Ta mikeletek, norbaittek mikeleteri deittu, ta mikeletek etorri eta "alto". "Eta zergatik?" eta "alto" esan zutela. Ta eskaillera behera jexteko trastek jetsi behar baldin bazian. Ta eskaillera behera jetsi eta handik etorri giñan Sarranera.
 -Aizu, amona, edozeiñek pentsatuko luke zuen atta gaixtua zela. Zuek joka ta hola, baiño...
 -Harek agindu zion ta jo in ber.
 -Zuen atta zer zen, gogorra? Zuen atta zena.
 -Gogorra ´re ez zen. Gurekin gailendu in, nik pixkat, nik iten nion kontra gehiena. Ni nintzan gehiena kontra iten niona, bai. Esaten nion: "atta, harrotua zaude bakarrik zealako, baiña guk'e badittugu barrabillak, e - esaten nion-, lotsagabekerin aitzeko ta ez baitzu arrazoiik", ez baitzun izaten askotan.
 -Baiño zuen atta ez zen behintzat gaixtua.
 -Ez, haiñe gaixtoa're ez.
 -Bakarra nausiak aginduko zion?
 -Nausiak agindu ta harek in in nahi nausik esan ziona.
 -Behintzat nausi harek bidali ziñuzten edo.
 -Bidali giñuzen bai.
 -Zenbat denbora pasa zenuen han?
 -Hamahiru hillabete.

2.4. Nagusiak etxetik bota eta artzainaren etxera lotara

- **Hizlaria(k)**: Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: GOI-017/006
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:10:56. **Bukatu**: 00:12:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Iruñeako etxe batean 13 hilabetez egon ziren bizitzen- Bertako ahateak, oiloak, fruta-landareak eta abar zaintzearen ardurak baitzuten. Nagusia oso gaiztoa zen eta etxetik bidali zituztenean, ondoko artzainaren etxean egon ziren gaua pasatzen.

Transkripzioa

-Goatzen naiz, biali giñuzen ta artzaien, artzaiaren zean sartu [zen], itxituran sartu ginttun, artzaiak, ardik egoten dian itxituran sartu ginttun trastek sartu zittuzten. Eta gu artzaien etxetan lotan. Han zen senar-emazteak alaba batekin ta nik in nun Felixan ta alabaren erdin lo. Lo ez, ohen eon, zergatikan ohe ttikia, hiru lagun ohe baten, ni hantxe izerditan! Gero jaiki ta, gaixoa, Matildek jarri zian katillu konketa haundi baten erdiraiño bota izan behar zin azukrea, zopak in ta kafesnea. Nik gozogia ta ezin hartu. Hantxe bota zun leihotikan oillategira. Oillategira bota zun katillukada azukre, kafea ta esnea ta ogik.

-Matilde zer zen artzaian...?
-Matilde artzaian andrea. Gaizki [egoten] zen gaixoa.
-Behintzat harek han utzi zizuen gaua pasatzen?
-Utzi zitun. Bai ta gero're Ixabelek abistu zigun karta... Iruñetikan kartak itten zittun Ixabelek, artzaian alabak. Ta abistu zigun nausia hiru gizonek hartuta eraman zutela eta gehio arrastorik ez zela.

2.5. Baserrirako behiak erdibana

- **Hizlaria(k)**: Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: GOI-017/008
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:14:32. **Bukatu**: 00:16:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Iruñean 13 hilabete pasa eta gero Sarranen Bordara bueltatu ziren Goizuetara. Handik Portolora joan ziren. Baserrian lan egiteko ezer ez zutenez, ezagun batek behiak erdibana eman zizkien.

Transkripzioa

-Hamahiru hillabete pasa behintzat...
-Hamahiru hillabete han pasa.
-Ta handik zer?
-Handikan Sarranera etorri.
-Ta Sarran nun da?
-Sarran hemen.
-Nun? Ze herritan?
-Goizutan, Sarran. Etorri ta euria ari zun. Madalenen deskargatu kamiona eta ekarri giñuzten horrera ta euria xir-xir-xir hola ari zun. Andre batek giltzaz ezin iriki ta ipurdikin jota iriki zun atea. Gero handikan Portolora. Portolon.
-Portolo ta Sarran ze auzotan dira Goizutan?
-Goizutan hemen Aittasemegin biek. Hemen Sarran ta Portolo hor. Eta handikan Portolora ta esan omen zioten gure aitta zenari: "Juan, nola in behar [dittozu] oaingo terrenon lana? Are bat ez, kate bat ez, behi bat ez. Ta nola in behar dittozu hango lanak?". Eta denak kontsegittu zittun gure aitta zenak. Gaspar zenak eman zizkion behiak erdibana. Gaspar zenak bi behi dotore erdibana. Uztarrin lotu ta eramaitten genun fantasi politta, behi bat Gasparrena ta bestea gurea. Baiña eramaitten genittun [...] polittekin zeara, arera, Portolon, alorrera. Alorren zeon barrabas belarra. Ez! Zerrimuturra. Zerrimuturra izaten da sartu aitzurra o... aitzurrakin mozten da, baiña hiru hortzekoa sartzan bada, hortzak bakarrik ateatzen dia. Bere hartan geratzen da zerrimuturra. Ikaragarri zikiña zeon ta gure aitta zenak ze in zun? Gorotzez ase. Ta gero hasi zian iñon baiño arto ederragok itten. Babarruna oso gutti izaten zen. Ia batez babarrunik. Eta nik ez dakit zertan fallatzen genun. Babarrunik ez zen itten. Arbia ederra itten zen.

3. Politika

3.1. Kamioiak hildakoak biltzen

- **Hizlaria(k):** Cestau Zabaleta, Joakina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** GOI-017/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:14:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Iruñean bizi zirela gerra hasi zen. Hildakoak non-nahi ikus zitezkeen. Kanean usain txarra zegoen eta kamioiak hildakoak biltzen aritzen ziren. San Kristobalگو gotorlekutik hildakoak eskuak buruan zituztela eta hankan lotuta ekartzen zituzten. Oso gogorra zen hura ikustea; behin, Joakina negarrez hasi eta aitak etxera eraman zuen.

Transkripzioa

-Ordurako gerra garaia zen.

-Bai, gerra garaia. Gizonak hillak ikusten nittun non-nahi. Nere aitautxia ospitalen zeon. Okerreko indizioa eman. Iltzeakin tetanoa sartu, tetanon kontrako indizioa ematen ziotelakon besten bat eman ta oso gaizki zeon nere aitautxia, Pako. Joten giñan egunero hura ikustera, izeba, bere ama ta ni. Dolores ta izeba jotzen zian. Ta usaia [hasten] zen, nabari izaten da hillen usaia ta aitta... Gero aittakin balin baniñon zeara, nola da, fruterira, "aitta ze usai dao?" ta "aurrera beitu Joakina, aurrera beitu" esaten zian. Ta gero ibiltzen zian zeak, kamioiak, hillak biltzen. Soldadu hillak eta edozein hiltzen zela ere, hillak biltzen kamioiak ibiltzen zian.

-Iruñean hori?

-Iruñean. Ta gu're oroitzen [...] gure aitta zena ta ama zena abiso in zutela lehion paretikan obek kentzeko edo iñor baldin bazeon leiho paren ez jartzeko edota nola obek hartuta baztertzen aittu zian, tiro soiñu [...] ibili zian. Eta Sankristobaldikan gizonak, jendek, nola ekarri zituzten, eskuk burun zituztela ta hankak lotukin. Hankak lotuk, katek bata besteari lotuk ta, krikiti-kraka, hiltzera eramango zituzten seguraski haik, e. Norabait'e behintzat eraman zittuzten. Ta ni negarrez ta aittak hartu ta etxera eraman. Haik ikusi ta negarrez hasi ni ta aittak hartu ta etxera eraman.

-Uf! A ze oroitzapenak bost urtekin.

-Bost urtekin bai. Ze txarra. Hogeita hamaseiko urtea baitzen, gerra.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Baserritik eskolarako bidea (GOI-002/004)

Eskolara herrira (Goizuetara) joaten ziren. Herrira bidean hainbat baserrititik pasatzen ziren eta etxe bakoitzean bertako umeak gehitzen zitzaizkien, denak batera eskolara joateko. Askotan berandu iristen ziren, bidean txori-habiak harrapatzen gelditzen zirelako. Udaberrian, ikasturte amaieran, gereziak batzen zituzten; udazkenean, ikasturte hasieran, hurrak eta intxaurrak.

2. Umetako erantzukizuna: esnea partitu eta enkarguak egin (GOI-002/005)

Umetan erantzukizun handia izaten zuten. Zenbait baserrikoek esnea partitzen zuten eta marmitetan eraman behar izaten zuten kalera txintxo-txintxo. Bueltan enkarguak eraman behar izaten zituzten etxera.

3. Mutikotan baserriko lanak egin behar (GOI-002/008)

Aitak Leitzako Sarrio lantegian lan egiten zuen hiru errelebotan. Etxeko ganaduen lanak beraiek egin behar izaten zituzten, eskolatik etxera joandakoan. Batzuetan, pilotan jostatzen gelditu eta berandutzen zitzairenean, amak errieta egiten zien. Belarra urtean 2-3 aldiz mozten zen. Hamabi urterekin joan zen Leitzara bizitzera eta ordurako bazekien sega erabiltzen. Denetariko lanak egiten zituzten.

4. Pilarika ingurua, iratzetarako sasoia (GOI-002/009)

Udazkena asko gustatu izan zaio beti. Pilarika ingurua iratzetarako sasoia izaten zen. Iratze-lurrak non zituzten. Goizean iratzea ebaki eta, ahal baldin bazen, iluntzean metatu. Auzoko edo senideek laguntzen zuten.

5. Lizar arbolak kimatu, "zatuka"k egin eta lehortu (GOI-002/010)

Borda inguruko lizar arbolak bi urtean behin kimatzen ziren. Aitak lizar gainera igo eta "kima-aixkora"rekin, aizkora txiki batekin, lizarra kimatzen zuen. Behean adarrik handienak ebaki eta "zatuka"k (pilatxoak) egiten zituzten. "Zatuka"k astoan bordara eraman eta zutik jartzen ziren, lehortzeko. Handik gaindegira eramaten zituzten, negurako.

6. Joare bakoitzak bere izena (GOI-002/012)

Gustura egingo lukeela joareen inguruko lan bat dio. Izan ere, joare edo zintzarri bakoitzak bere izena zuen: "joare-kalanka", "txintxerria", "zintzerria", "pulunpa"... Onomatopeiaren araberako izena ematen zitzaien askotan. Gainera, abere desberdinen joareak zeuden. Mandazainek, "pasta" (basta) ez mugitzeko, petrala jartzen zuten kaskabiloekin; atzealdean "aztal-uhala". Garai batean mandazainak bere idoloak omen ziren, ongi bizi zirela iruditzen zitzaiolako.

7. Lizarra, arbola garrantzitsua; negurako abereentzat bazka (GOI-002/013)

Lizarrak kimatzen ziren, negurako abereentzat bazka izateko. "Lizar-zatuka"k "mutxitea"ren erdian sartzen ziren eta azpian "iratze-mela" jartzen zen. Elurte handiak zirenean eta abereak goseak zeudenean, arba ez beste guztia jaten zuten ia. Lizarra arbola garrantzitsua izan da eta gure aurrekoek bazekiten alimentu handikoa dela. Erleek eta liztorrek ere lizarraren azalaren barruko sustantzia aprobe txatu egiten dute.

8. Udazkenean perretxikotan; perretxiko estimatuenak (GOI-002/014)

Perretxikorik estimatuenak udaberriko zizak direla dio, baina Leitzara joan arte ez zituen ezagutu, Goizuetan ez zegoelako (kare-lurra behar omen dute). Udazkenean asko ibiltzen ziren perretxikotan. Perretxiko klaseak. Onddoen artean onddo beltza eta zuria ziren estimatuenak. Euren baserri inguruko harizti ezagunenak. Urrutiago ere joaten ziren.

9. Iratzea, ganaduari azpiak egiteko garrantzitsua (GOI-002/016)

Ganadua zuten etxean. Iratzea garrantzitsua izaten zen ganaduari azpiak egiteko. Azpi guztia garbitzen zitzairenean, poza sentitzen zen. Ardiei gutxiagotan egiten zitzairen azpia. Eguraldi txarrarekin ardiek gehiago bustitzen zuten (ilearen erruz) eta azpiari bi-hiru aldiz buelta ematen zitzaion artegian. Auzoan nabaritzen zen nork egiten zituen azpiak eta nork ez, ganaduaren garbitasunari erreparatuta.

10. Bi aldi ardiei joarea jartzeko; artzainaren ilusioa (GOI-002/018)

Garai batean izan zuten artaldearen joareak zituzten ganbarako habetik zintzilik. Artzainak ilusioa izaten zuen ardiei joareak jartzeko. Bi aldi izaten ziren: udaberri inguruan, ardiak umatzen zirenean, eta udazkenean, aharia ematerakoan. Etxean ziren joarerik handienak eransten ziren.

11. Behorrak hezi egin behar (GOI-002/021)

Baserriko gaiak garraiatzeko astoa motz gelditzen zela eta bi behor ekarri zituen aitak. Hezi gabe zeuden eta komeriak pasa zituzten haiek hezi eta "pasta" (basta) jarri ahal izateko. Egurretara joan eta nahi gabe adakiren batekin ukituz gero, aztoratu egiten ziren.

12. Oiloak emakumeen kontua; horren inguruko kanta (GOI-002/023)

Oiloak emakumeen kontua izaten ziren. Horren inguruko kanta bat abesten du (emakumeen hikan): "Sosik ez diñet oandik ekusi, oiloak erruten ez dittun hasi...". Emakumeentzat garrantzia handia zuten arrautzek. Amak kontatu izan zion goizean goiz jaiki eta, arrautza dozena osatu nahirik, oiloei ipurdian gatza jarri izan ziela, arrautza lehenago eginarazteko.

13. Zerriak ezkurretara; ixtegia; zerrien sena (GOI-002/024)

Zerriak ezkurretara eramaten zituzten, hazteko. Udazkenean eraman eta otsail aldera arte. Gogoan du Leitzara joan ziren urtean pagatxa asko izan zela eta ezkurretara eraman zituzten bi txerriak izugarri gizendu zirela. Aitak zerri txabola edo ixtegia nola egin zuen. Zerri klaseak. Bi zerrikumeak iluntzean ezkurretan utzi eta hurrengo goizerako etxe atarira itzuli ziren. Sen handia omen daukate. Etxe inguruan zebiltzanean, alanbre bat jartzen zitzairen, muturka ez aritzeko.

14. Bildotsak, arkazteak eta betutsak (GOI-002/025)

Bildotsak jaiotzen zirenean, "soto"an (ukuiluan) uzten ziren; ardiak, berriz, larrera. Elkartzen zirenean, "ama-umetu" egiten zirela esaten zen. Udazken aldean urtebeteko bildotsa bereizi egiten zen. Ordura arte "bildotsa" esaten

zitzaion; bi urtekoari "arkaztea"; eta hirukoari "betutsa". Urtebetetik aurrerakoei artantzuak esaten zitzaien.

15. Artzainen afana zikiroekin; nola zikiratzen ziren (GOI-002/026)

Artantzu aharikoak, urtebete ingurukoak, zikiratu egiten ziren. Artzainek afana izaten zuten zikiroekin. Artzain batek bere buruari kantatzen ziona: "Bun, bun... ehun zikiro Buroko soron beti...". Aitak artantzu aharikoak nola zikiratzen zituen.

16. Gurasoak Goizuetako zubiaren alde banatakoak (GOI-002/028)

Goizueta "goi-zubieta"tik omen dator. Herriaren erdian zubi handi bat dago. Inguruan ere baditu zubi gehiago. Patzikuren ama zubiaren alde batekoa zen, Alkaso aldekoa, eta aita beste aldekoa, Aitasemegikoa. Amaren familia aitarena baino aberatsagoa zen. Aitak kontatzen zuen baserria erre egin zitzaizela eta etxe berria egiterakoan galdu zituztela artaldea eta bestelakoak. Aitaren familia baserri batetik bestera ibili zen, Karreto baserrira iritsi arte. Aitak ezkondu aurretxoan erosi zuen Karreto eta han jaio ziren beraiek.

17. Goizuetatik Loitzate alderako orografia; Aitasemegi (GOI-002/029)

Aitasemegi auzoa. Etimologia. Aitasemegiko soroa izeneko tumulua ere badago. Goizuetatik Loitzate mendi alderako orografiari begiratu, eskailera antzekoak ikusten ditu: Benaisoro, Zalkintza, Portolonborda, Aitasemegi, Ataketa... Bi ahizpen sepultura izeneko trikuharria. Aitasemegi izenarekin lotura ikusi izan dio beti.

18. Perurena abizenaren ibilbidea (GOI-002/031)

Lagun batek bidalitako zuhaitz genealogiko batean ikusi zuen Perurenatarrak Iruritako Perunea izeneko etxetik datozela. Perurena horietako bat Leitzara joan zen eta handik, ezkondu ostean, Goizuetara. Gerora non zabaldu ziren Perurenatarrak. Goizuetan Tartazu izeneko auzoa dago eta Larrainen (Zuberoan) Tarta izeneko. "Tarta"ren esanahia.

19. Garai batean gehienak maizterrak; etxejabe nagusiak (GOI-002/036)

Garai batean gehienak maizterrak ziren, batez ere baserrietan. Leitzako garai bateko etxejabe batzuk aipatzen ditu. Berak artxiboetan arakatu izan du. Etxejabeak hartzen ziren kontuan zergak ordaintzeko orduan eta eskubide gehien ere beraiek zituzten (karguren bat eskuratzeko, adibidez). Etxeen kontaketa sukaldeka egiten zen eta etxejabeak kontatzen ziren (batetik bestera zebiltzan maizterrak ez). Jendea animalientzako egindako bordak baserri bihurtu eta bertan bizitzen hasi zenean, zaila zen kontrola eramatea.

20. Maizterren bizimodua: ezin aurreztu (GOI-002/039)

Garai batean ez zen dirurik ikusten eta maizter askok baserrian jasotzen zutenarekin ordaintzen zioten etxejabeak. Bere gurasoak ere maizterrak izan ziren. Aitak basoan lan egiten zuen eta irabazitako dirua amari ematen zion, familia aurrera ateratzeko. Hala ere, ezkontzerakoan, zorrak aurkitu zituen. Amak horren inguruan esaten zuena.

21. Leitzara bizitzera, aitaren lana zela eta (GOI-002/041)

Leitzara joan ziren bizitzera, aita bertan hasi zelako lanean. Aurretik, goizeko erreleboa zuenean, oso goiz jaiki behar izaten zen Leitzarainoko bidea egiteko. Leitzan etxe bila hasi zirenean, ez zegoen etxerik libre, Sarrio lantegia puri-purian zegoelako eta inguruetatik jende asko joan zelako bertara. Azkenean, pisu bat erosi zuten. Hasieran aldaketa handia izan zen berarentzat eta, ahal zuenean, baserri ingurura alde egiten zuten.

22. Leitzako langile-mugimenduak; hizkeran eragina (GOI-002/043)

Leitzak langile-mugimendu handia izan zuen Plazaolako trenbidearekin. Trena herritik pasatzeak ere eragina izan zuen. Gerra ondorenean hutsaldi bat izan zen, Sarrio lantegia sortu bitartean. 1954 inguruan gelditu zen trena, uraldi batzuek zubi batzuk eraman ostean. Garai horretan jendea Frantzia aldera edo Andoain inguruan sortu ziren teila lantegietara joaten zen lanera. Goizuetak ez du izan halako mugimendurik. Hizkera aldetik ere antzeman egiten du aldea: Leitzan bereizi egiten da kalekoen eta baserrikoen hizkera eta Goizuetan, aldiz, antzekoagoa da.

23. Aitak greba egin zuen, Sarrio paper-lantegian sartzeko I (GOI-002/045)

Sarrio paper-lantegiaren sorreran, bere aita eraikuntza lanean ibili zen. ELGA (Elizegi eta Garmendia) zen lan hori egiten zuena. Lantegia martxan hasten zenean, hara pasatuko zirela adostu zuten, baina ez zen hala izan. Inguruko jende asko hasi zen fabrikari lanean, baina beraiek eraikuntza lanetan jarraitzen zuten. Orduan, greba egin zuten. Patxi Arrazola zuzendariarekin hitz egin ostean, beste urtebeterako kontratua egin zuten, baina orduan ere ez zuten hitza bete eta berriz egin zuten geldialdia.

24. Aitak greba egin zuen, Sarrio paper-lantegian sartzeko II (GOI-002/047)

Aitak eta lankideek greba egin zuten Sarrio lantegira sartu nahi zutelako (eta nagusiek ez zutelako hitzartutakoa bete). Garai hartan artean ez zen halako mugimendurik eta harrigarria egin izan zaio beti. 1965 ingurua izango zen.

25. Sarrio lantegia eta haren inguruan sortutako eskolak (GOI-002/048)

Sarrio paper-lantegiaren bilakaera. Patxi Arrazola. Sarrioren inguruan sortu zen eskola profesionala. Herrian hika-mikak sortu ziren, aldekoak eta kontrakoak. Horri aurre egiteko, nekazaritza-eskola sortu zuten. Kooperatiba ere sortu zen, baina ez zuen funtzionatu. Sarrioren inguruan egiten ziren iruzkinak.

26. Senarra ezagutu zueneko (GOI-017/011)

Senarra zena Ama Birjina batzuetan ezagutu zuen. Nobio garaiko hasierak kontaktzen ditu. Danbolin Bordan bizi zirela ezkondu ziren eta Artantxu baserrira joan ziren.

27. 14 lagun bizi diren etxean, umeak ere lanean (GOI-017/013)

Lau ume zituztela etorri ziren Artantxu baserrira. Baserrian lan asko eginda egin zuten aurrera. 14 lagun bizi ziren Artantxun, familia handia. Ume txikiek ere erruz egin behar izaten zuten lan baserrian.

28. Goizuetara astoz edo zaldiz (GOI-017/014)

Goizuetara, herrira, askotan jaisten ziren astoz edo zaldiz. Enkarguak egiteko aprobetxatzen zuten. Ogia ere erosten zuten eta behin ogia zela eta bizi izandako gertaera kontatzen du. Zein ibilbide egiten zuen azaltzen du.

29. Baserrian goserik ez (GOI-017/015)

Lehengo Goizuetara nolako zen azaltzen du pasarte honetan jende gehiago bizi zen baserrietan. Beraiek baserrian ez zuten sekula goserik pasatu, beti zuten zer jan: ez baldin bazan txerria, ardia zein zikiroa.

30. Hobe eskean lapurretan baino (GOI-017/017)

Beraien aita zenak beti esaten omen zuen eskuak garbi izatea garrantzitsua zela. Hobe zela eskean aritzea lapurretan egitea baino.

31. Gurasoak nolakoak zituen (GOI-017/019)

Bere gurasoak nolakoak ziren azaltzen du. Aita sudur luzea zen eta umoretsua, baina jenio handikoa. Amak bere umeak eta gainerakoak ere hazi omen zituen.

32. Ama beste etxe batzuetara lanera (GOI-017/020)

Bere ama beste etxe batzuetara ere joaten zen arropak garbitzera. Eskuak tximur-tximurtuta eta zurituta izaten zituen amak. Arropak ez ziren harraskan garbitzen. Ama beste etxe batzuetara joaten zuenez, beraiek lan gehiago egin behar izaten zuten etxean: Ama Birjinetan, adibidez, gonbidatuak izaten zituzten etxean eta ama gabe lan handia izaten zuten. Etxeko epeltasuna bestelakoa omen zen ama zegoenean.

33. Gurasoek beti ohe berean egiten zuten lo (GOI-017/021)

Bere gurasoek beti egiten zuten lo ohe berean, nahiz eta beste ohe bat ere izan aldamenean. Behin ama ondoezik zegoela beste ohean sartu eta aita beraien ohetik erori eta bekokia zauritu zuen. Azkenean ere, biak berriro ohe berean sartu zituzten.

34. Aitak Santa Kurtzetan sua piztu zueneko (GOI-017/022)

Bere aita oso kontu kontalaria zen. Oso kontu politak kontatzen zituen txiste modura. Behin Santa Kurtz egunez, maiatzaren 3an, basoan sua egin eta gero gertatutako istorioa kontatzen du Joakinak pasarte honetan.

35. Aitak eta aitonak izandako anekdota (GOI-017/023)

Bere aita oso kontu kontalaria zen. Oso kontu politak kontatzen zituen txiste modura. Behin hark eta haren aitak bizitakoak kontatzen dizkigu pasarte honetan.

36. Hildako txerrien eta ardien anekdota (GOI-017/024)

Bere aita oso kontu kontalaria zen. Oso kontu politak kontaktzen zituen txiste modura. Hildako txerri eta ardiak protagonista zituen gezur bat tarteko, ingurukoekin izandako anekdota bat kontaktzen du.

37. Aitaren txakurra apaizaren txakurraren kontra (GOI-017/025)

Bere aita oso kontu kontalaria zen. Oso kontu politak kontaktzen zituen txiste modura. Apaizak denak jotzen zituen txakurra omen zuen. Beraien aitaren etxeko txakurra ere bizkorra omen zen eta apaizaren txakurra txikitu omen zuen behin.

38. Errekan ito beharreko ardien eta txakurraren istorioa (GOI-017/026)

Bere aita oso kontu kontalaria zen. Oso kontu politak kontaktzen zituen txiste modura. Errekan ito beharreko ardien eta txakurraren istorioa kontaktzen du. Txakur hark buruhauste asko sortu zizkien.

39. Aitak txerrien pertzatik edan zuenekoa (GOI-017/027)

Eguberritan beraien aitaren etxekoek bizitako anekdota bat kontaktzen du.

40. "Maria ttiki korupeko" abestia eta azalpena (GOI-017/056)

"Maria ttiki korupeko" abestia abesten du azalpen eta guzti.

41. Mezak latinez, deus ulertu gabe (GOI-017/057)

Mezak latinez izaten ziren eta ez zuten deus ulertzen.

42. Ailegatu ez zen bedeinkazioaren istorioa (GOI-017/059)

Ailegatu ez zen bedeinkazioaren istorioa kontaktzen du.

43. Sineskeria eta sakamantekasen kontuak (GOI-017/060)

Sineskeria eta sorgin kontu asko kontaktzen zizkien. Maria Monoko eta Sakamantekasarenak, adibidez. Leitzako erlojugilearen alabei ere gantzak ("mentakak") kendu omen zizkieten.

44. "Barreñua" eta maindirea buru gainean zeraman sorginaren istorioa (GOI-017/061)

Portoloko 'Malen Txikia' ren istorioa kontaktzen du. Buru gainean terreina ("barreñu") batekin ateratzen omen zen eta maindirea gainetik bota. Jendea izutzen aritzen zen horrela. Sorgina zelakoan, gizon mozkorrekin gertatutako istorioa kontaktzen du.

45. Aitona mozkortu zeneko istorioa (GOI-017/062)

Joakinak bere aitona protagonista duen istorio bat kontaktzen du. Aitona askotan mozkortzen omen zen. Behin aitona tabernatik atera ondoren, Joakinaren aita zena bere bila joan zen guardasolaren gainean maindirea jarrita. Bizitakoak bizi eta gero ez omen zen gehiago mozkortu beraien aitona, geroztik bake ederra eman omen zuen.

46. Neska gazteak izutzeko kalabazak (GOI-017/063)

Kalabazak neska gazteak izutzeko jartzen zituzten.

47. Jentilen istorio bat (GOI-017/065)

Jentilak protagonista dituen istorio polit bat kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com